

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

339/2022 Foru Agindua, ekainaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 92 ter artikuluko zerga zor eta zehapenengatik Gipuzkoako Foru Ogasunaren zordun direnen zerrendak zein egunetan argitaratu ezartzen duena eta zerrenda horien fitxategi eta erregestroak zehazten dituena.

Martxoaren 14ko 1/2016 Foru Arauak, bere artikulua baka-rra dela medio, 92 ter artikulua gehitu zion Zergen Foru Arau Orokorriari. Artikulu berrian xedatzen da zerga betebeharren ez-betetze kasu esanguratsuei publikotasuna emango zaiela Foru Ogasunarekin zerga zorrak edo zehapenak dituztenen zerrendak aldian-aldian argitaratuz, baldin eta, araudi aplikagarriak finkatzen duen erreferentzia datan, zergadunak ordaindu gabe dituen zerga zorren eta zehapenen zenbateko osoa 1.000.000 euro baino handiagoa bada, eta, betiere, borondatez ordaintzeko epea behin igarota zor horiek ordainduta ez badaude eta geroratu edo eten ez badira.

Artikulu horrek ezartzen du zerga betebeharren ez-betetze esanguratsuen zerrenda urtero prestatu eta argitaratu beharra dagoela, aurreko urteko abenduaren 31n zegoen egoera erreferentzia data hartuta. Arauak berak dioenez, argitalpen data zehatza eta argitaratu beharreko fitxategi eta erreregistroen datu teknikoak foru agindu bidez ezarriko dira, eta argitalpena beti egín beharko da urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan.

Hortaz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 92 ter artikuluko 4. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriz, agindu hau ematen da haren bitartez zehazteko noiz argitaratuko diren 2022. urtean Zergen Foru Arau Orokorreko 92 ter artikuluko zerga zor eta zehapenengatik 2021eko abenduaren 31n Gipuzkoako Foru Ogasunaren zordun direnen zerrenda eta dagozkion fitxategi eta erreregistroak.

Horiek horrela,

EBAZTEN DU

1. artikulua. *Zerrendaren argitalpen data 2022. urterako.*

Zergen Foru Arau Orokorren 92 ter artikuluko 1. apartatuan aipatutako baldintzak betetzen dituzten zerga zorrak eta zehapenak izateagatik Gipuzkoako Foru Ogasunaren zordun direnen zerrenda, erreferentzia data 2021eko abenduaren 31 izango duena, 2022ko ekainaren 30ean argitaratuko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan (<https://www.gfaegoitza.eus/>).

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Orden Foral 339/2022, de 19 de junio, por la que se determina la fecha de publicación y los correspondientes ficheros y registros de la relación comprensiva de los deudores a la Hacienda Foral de Gipuzkoa por deudas o sanciones tributarias que cumplan las condiciones establecidas en el artículo 92 ter de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Norma Foral 1/2016, de 14 de marzo, introduce en su artículo único un nuevo artículo 92 ter en la Norma Foral General Tributaria en el que se dispone el dar publicidad a las situaciones de incumplimiento relevante de las obligaciones tributarias, a través de la publicación periódica de relaciones comprensivas de los deudores a la Hacienda Foral por deudas o sanciones tributarias cuando el importe total de las deudas y sanciones tributarias pendientes de ingreso a su cargo superen, a la fecha de referencia que fija la normativa aplicable y en cómputo global por contribuyente, el importe de 1.000.000 € siempre que tales deudas no hubiesen sido pagadas transcurrido el plazo de ingreso en periodo voluntario y no se encuentren ni aplazadas ni suspendidas.

La regulación obliga a que la elaboración y publicación de la relación comprensiva de las situaciones de incumplimiento relevante de las obligaciones tributarias se haga anualmente, tomando como fecha de referencia para la determinación de la concurrencia de los requisitos legalmente establecidos la de 31 de diciembre del año anterior al del acuerdo de publicación. La propia norma reserva a una orden foral ulterior la concreta determinación de la fecha exacta de publicación, que deberá producirse en todo caso durante el primer semestre de cada año, y la identificación de los datos técnicos de los correspondientes ficheros y registros de la referida relación.

Por tanto, conforme a lo dispuesto en el apartado 4 del artículo 92 ter de la Norma Foral 2/2005 de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa se dicta la presente Orden, que tiene como objeto concretar, para el año 2022, la fecha de publicación y los correspondientes ficheros y registros del listado comprensivos de los deudores a la Hacienda Foral de Gipuzkoa por deudas o sanciones tributarias que cumplan las condiciones establecidas en el artículo 92. ter de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a 31 de diciembre de 2021.

En su virtud,

RESUELVE

Artículo 1. *Fecha de publicación de la relación para el año 2022.*

La publicación de la relación comprensiva de los deudores a la Hacienda Foral de Gipuzkoa por deudas o sanciones tributarias que cumplan las condiciones dispuestas por el apartado 1 del artículo 92 ter de la Norma Foral General Tributaria, con fecha de referencia 31 de diciembre de 2021, se realizará con fecha 30 de junio de 2022, en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (<https://www.gfaegoitza.eus/>).

2. artikulua. Zerrenda prestatzeko erabilitako fitxategi eta erregistroen zehaztapena.

Aurreko apartatuan aipatutako zerga zorrak edo zehapenak Herri Ogasunarekin edukitzeagatik zordun direnen zerrenda prestatzeko, erabiliko dira 2021eko abenduaren 31n GFaren Informazio Sistematan ordaindu gabe ageri diren zor eta zehapenen datuak –etenda edo geroratuta ez daudenenak–, kontuan hartu gabe zer zenbateko zor duten argitalpen datan zerrendan identifikatutako zergapekoek.

Zerrenda horretan beharrezko eremuak agertuko dira datu hauek identifikatzeko: argitaratzen den informazioarekin lotuta dagoen zorduna (izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, pertsona fisikoa bada, eta sozietate izena, osorik idatzita, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, pertsona juridikoa edo zergen foru arau orokorraren 35.3 artikuluko entitatea izanez gero), eta zor eta zehapenen zenbateko osoa erreferentzia datan, datu turik banakatu gabe.

Zerrenda bitarteko elektronikoa erabiliz argitaratuko da, Portable Document Format edo PDF formatuan, eta, teknikaren egoera aintzat hartuta, beharrezko neurriak hartuko dira edukia interneteko bilaketa motorren bitartez indexatzea galarazteko, betiere ziurtatuta argitaratu eta hiru hilabetera zerrendak ez direla eskuragarri izango, Zergen Foru Arau Orokorrak 92 ter artikuluan dioen moduan.

Ogasuneko zuzendari nagusiari dagokio ebazpen bidez aldatzea zordunei buruz argitaratzen diren datuen fitxategi informatikoa eta haren ezaugarri nagusiak, izaera pertsonaleko datuak babes-teko legeriari jarraituz.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean foru agindu hau.

Donostia, 2022ko ekainaren 19a.—Ogasuna eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (4129)

Artículo 2. Determinación de los ficheros y registros utilizados en la elaboración de la relación.

La relación comprensiva de los deudores a la Hacienda Pública por deudas o sanciones tributarias referida en el apartado anterior, se elaborará a partir de los datos de deudas y sanciones pendientes de pago, que no se encuentren suspendidas ni aplazadas, obrantes en el Sistema de Información de la DFG a fecha de referencia 31 de diciembre de 2021, con independencia de cuál sea la cantidad efectivamente debida por los obligados tributarios identificados en dicha relación a la fecha de publicación.

Dicha relación incorporará los campos que permitan identificar al deudor cuya información es publicada, identificable por su nombre, sus apellidos y su número de identificación fiscal, si es persona física y por su razón o denominación social completa y su número de identificación fiscal, si es una persona jurídica o entidad del artículo 35.3 de la Norma Foral General Tributaria, identificación a la que se asociará el importe del total de deudas y sanciones debidas a fecha de referencia, en cómputo global, sin desgloses.

La publicación se efectuará por medios electrónicos, en formato PDF (Portable Document Format), adoptando las medidas necesarias, conforme al estado de la técnica, para impedir la indexación de su contenido a través de motores de búsqueda en Internet y asegurando que la relación dejará de ser accesible una vez transcurridos tres meses desde la fecha de publicación, de acuerdo con el artículo 92 ter de la Norma Foral General Tributaria.

Corresponde al Director o Directora General de Hacienda aprobar, mediante resolución, la modificación del fichero informático de deudores que da soporte a los datos objeto de publicación y sus características principales, en los términos previstos en la legislación de protección de datos de carácter personal.

Disposición final única. Entrada en vigor.

Esta Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 19 de junio de 2022.—El diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas. (4129)